

Itsutasunaren bizi-esperientzia

TALDE DINAMIKA

70 (Tomas) eta 50 (Javi) ZENBAKIKO ATALA

DATA: 09/06/17.

SAIOA: 5 zka.

GAIA: Bizi-esperientzia (itsutasuna). Taldean giro lasaia ahalbidetzea. Lateralitatea eta espazioa lantzea. Instrukzioak emateko/jasotzeko irizpideen garrantzia.

IRAUPENA. 1h.

PARTAIDEAK

Josu Sánchez.

Esther González.

Sebastián Millán.

Enmanuel Vicho.

Daniel Ayo.

Luís Merino.

Pedro Emparan

Alex Estebez.

Adriana Silva

Alberto Sarabia.

Ascensión Díez.

Ricarda García.

Iñigo Pampín: Laguntza-teknikaria

GARAPENA

Dinamika honetan, itsutasunaren “bizi-esperientzia” bat burutu dugu, eta taldekide bat, kasu honetan Enmanuel Vicho, dinamikak iraun duen bitartean begiak itxita egon da.

Honekin nahi dugu:

Zentzumeneren urritasun bat, itsutasuna kasu, daukan pertsona batek bizi duen errealitatearen kontzientzia hartzea.

Mugak esperimentatu, bizi eta sumatzea eta ohiko bizitzan ikusmen-urritasuna duten pertsonak aurkitzen dituzten zailtasunak jabetzea.

Urritasuna duten pertsonenganako jarrera solidario, positibo eta errespetuzkoak sustatzea.

Jardunaldietan parte-hartze aktiboa bultzatzea, urritasuna duten pertsonen lekuan jarri, egoera horiek bizikiago barneratzeko.

Honela, denok jarri gara zirkuluan eta eserita, “Simonek dio...” jokoari ekin diogu, baina Simon izena Mr. Bean izenaren ordean aldatuz, taldeak hala eskatuta. Jokoan gutako bakoitzak agindu bat ematen genuen, hitzez edo ekintza beraren bidez (adierazpen-arazoak dituzten pertsonekin), eta gainontzekoak kopiatu behar zuten. Hauek dira imitatu beharreko zenbait agindu: “Mr. Bean-ek dio:

Ezkerreko eskua eskuineko belarrira.

Oina ukitu ezkerreko eskuarekin.
Arnasa hartu.
Ezkerreko eskua eskuineko ukondora.
Ezkerreko hanka altxatzea...

Behin jarduera hori bukatuta, sukaldera jo dugu hurrengo egiteko. Honetan, bakoitzak paper batean marraztu behar zuen nola atondu banakako mahai bat, eta gero arbelean nola egin duten ikusi.



1. irudia: dinamikan parte hartu dutenen argazkia

Ikusi ahal izan genuen bezala, marrazki bakoitza desberdina zen, eta honek balio izan digu konturatzeko aginduak eman eta jasotzeko orduan zein garrantzitsuak diren irizpideak; edozein ataza egiteko garaian, irizpide argirik ez badago, denik eta sinpleena eta ohikoena iruditzen bazaigu ere, eta beraz, azalpen beharrik gabea, persona bakoitzak berea erabiliko du eta, ondorioz, pertsona adina modutan egingo da ataza. Honela, eta gehien bat haiei dagokienean, oso garrantzitsua da, atazak burutzeko orduan, monitoreak irizpide argiak ematen dizkiela ziurtatzea eta beharrezkoa balitz, irizpideok eskatzea (honekin, aurreko dinamikan indartu nahi izan genuen “errealitatearen analisi kritikoa”rekin erlazionatzen dugu, eta lehen atalean aginduak eman diren moduarekin).

Dinamikaren amaipuntu gisa, soilik geratzen zen Manuri galdetzea nola sentitu zen dinamika horretan eta zein alderdi nabarmenduko zituen. Hauek izan ziren erantzunak:

Gehien bat hasieran urduri nengoan, ez bainekien oso ondo zer egin nahi zenuen nirekin, baina gero, azaldu didazunean eta ezer ez zela gertatzen ikustean, lasaitu naiz eta ez dut gehiago pentsatu.

Asko kostatu zait esaten zenizkidan gauzak egitea, ez nekielako nola; ez nuen ezer ikusten eta ezin nuen marraztu.

Kideak bulegotik jantokira ninderamanean, beldur nintzen, bultzaka eramango banindu bezala sentitzen bainintzen, gero aldatu da (kideari esan zitzaion Manuri uzteko berari heltzen eta ez alderantziz) eta hobeto joan da.

Gaizki sentitzen zara ez dakizulako/ezin duzulako agindutakoa egin, eta gainera, ez duzu inguruan gertatzen dena ikusten eta izua daukazu.

Gehien erabili dudana entzumena izan da.

MASKARA

Bizi-esperientzia: Iñigo Beunza (Zerbitzu Okupazionalako erabiltzailea)

Idazlaría: Iñigo Pampín:

Tailerra: Erandio.

Hasieran desorientaturik sentitzen nintzen, argirik gabe, nirekin zeudenak ikusi gabe, nahiz eta hizketan entzuten nien. Bitxia zen horrela egotea. Nahiago dut gaez ibiltzea, baina nondik noan ikusten. Horrela egotea gauarekin konpara daiteke, bertan batzuetan oso ilun ikusten da dena, zerua eta itsasoaren hondoa, kasu.

Nik uste dut ikusmena zentzumen garrantzitsuenetako bat dela gugan, dena sumatzen baita den bezalaxe, ala ez? Egun batean, errepide baten ondoan paseoan nindoala, errepidea zeharkatzen zuen zerbait ikusi nuen, animalia bat zela pentsatu nuen baina ume bat zen eta eskutik heldu nion.

Lehen begiratuan, edo txori-begiratuan, ikusi bezala sentitzen dugu, dela hurbiletik zein urrundik. Esan ohi da irudi batek mila hitzek baino gehiago balio duela. Gainontzeko zentzumenek

beste modu batez ematen digute gauzen berri, usaimen, ukimen, dastamen eta entzumenaren bidez. Maskararena bestea ezagutu gabe egiten den hitzordu batekin konparatu daiteke, gizon batek eta emakume batek osatutako bikote batekin.

Halaber, babesgabe ere sentitzen nintzen, nahiz eta jakin nortzuekin eta non nengoan. Kontzientziaren beste egoera batzuekin konpara zitekeen, non erabateko isiltasuna egonda ere, grabatutako zinta bat entzun baitzitekeen, zenbait soinu eta zaratekin eta ahotsak, musika ere bai.

Gauza bera, baina maskararik gabe, gerta daiteke ia ilun, argi gabe, dagoen gela batean. Desberdina izango zen, gauza bera baina maskararik gabe eta betaurreko ilunekin, baina zerbait ikus zitekeela, nahiz gutxi eta gaizki.

Eta zera pentsatzen dut, posible al da amets bat erreala den zerbaitekin konparatzea? Maskararen kasuan, ez litzateke errobot bat bezala, makina bat delako, gizakiok edo animaliek ez bezala atzematen baitu dena. Zer gertatuko litzateke maskara jantzita gehiago erabiliko balira gainontzeko zentzumenak: ukimena, dastamena, usaimena eta entzumena?, nola atzematen dute bizitza, ingurunea eta gainontzeko guztia itsuek?